

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko irailaren 7a. VIII. urtea. 2.268. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Kamioi gidari bat hil da Tolosako Aldaba Txiki auzoko AHTren lanetan

Juve enpresarentzat lanean zebilen 47 urteko gizona amildegitik behera erori zen kamioiarekin, atzo goizeko 04:00etan

Lan istripua salatzeko ELA, LAB, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuak elkarretaratzea deitu dute bihar, 12:00etan, Tolosako udaletxearen aurrean 03



47 urteko langilea amildegitik behera erori zen kamioiarekin, atzo goizeko 04:00etan. A. IMAZ

Iker Karrera Mendi lasterkaria

«Ez nuen espero bigarren egitea Mont Blanc-eko Ultratrail proban»

Korrikalari amezketarra uste baino emaitza hobegoak lortzen ari da aurtengo sasoiari 06



Sebastien Chaigneau, Killian Jornet eta Iker Karrera, podioan. ODOUX-FRANCK

Auzipetuekiko atxikimendua areagotuz doa leitzarren artean

Bihar Madrilen deklaratzera deitu dituzten hiru herritarrei babesa eta laguntza azaltzeko elkarretaratzea egingo dute gaur 20:00etan 07



**MA
TRI
KU
LA**

Aitzol Udal Euskaltegia

Rondilla 34-B, 3.a
20400 TOLOSA
tel. 943651006 - 943652343
www.udaleuskaltegiak.net
aitzolue@tolosakoudala.net



Iñaki Irazabalbeitiak eta Mikel Uzkudunek azaldu dituzte ikasturte berriaren nondik norakoak. I. URKIZU

Zabalik da euskaltegiko matrikulazio epea

Aitzol Udal Euskaltegian matrikula egin nahi dutenek, irailaren 16ra bitarte izango dute aukera

Tolosan erroldatutako ikasleek diru laguntzak izango dituzte udalaren eskutik

Itzea Urkizu Tolosa

Ongi etorri leloak bete du aurten, irailaren 16ra bitarte zabalik izango den udal euskaltegiatiko matrikulazio kanpaina. Hain zuzen ere hauxe da ikasleei helarazi nahi dieten mezua, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegi zuzendaria den Mikel Uzkudunek azaldu duen moduan.

«Ongi etorria hainbat hizkuntzatan eman nahi dugu, izan ere, ama hizkuntza desberdinetako jendea dugu gure ikasleen artean», dio Uzkudunek. Bide honetan, ikasturte berria euskaltegian hasiko duten ikasleak etxean bezala sentitzea nahi dutela nabarmendu du, «gure hizkuntza inposaketarik gabe irakatsiz».

Hezkuntza eta Hizkuntza poli-

tika zinegotzia den Iñaki Irazabalbeitiak, berriz, euskararekin modu bateko edo besteko arazoak dituzten eskualdeko herritarrek animatu nahi ditu, euskaltegian izena emateko: «batzuek bihotzeko arazoak izaten dituzte, hemen jarioak direlako, euskaldun sentitzen direlako, baina bizitzaren gora beherak medio, ezin dituztelako, adibidez, bertsolariak ulertu». Era berean, lanerako edo seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko euskarazko klaseak jasotzeko beharra sentitzen duten herritar asko ere badirela azaldu du. «Arrazoi bat edo bestea izan, merezi du hizkuntza bat ikasteak, norberaren kultura hazteko eta munduko beste leihobatzuk zabaltzeko». Azkenik, Irazabalbeitiak kanpotik hona datozenak

ere gogoan izan ditu, eta «gure artean erosoago bizi eta harremanak errazteko, hauei ere ongi etorria eman nahi diegu».

Eskaintza desberdinak

2011-2012 ikasturterako aldaketa nabarmenik ez dutela egin azaldu du Mikel Uzkudunek.

Aurrez aurreko eskolei dagokienez, 10, 8, 6 edo 4 orduko klaseak antolatuta dituzte. Autoikasuntzako moduluari dagokionez, berriz, mantentzea erabaki dute: «autoikasuntzatik azterketetara joan diren ikasleek emaitza hobekak lortu dituzte aurten, aurrez aurreko klaseetako ikasleek baino. Hala ere, egia da autoikasuntza moduluko ikasleak diziplina handia behar duela», dio Uzkudunek. Azken bospasei urteotan autoikasuntzak bilakaera oso ona izan duela azaldu dute, eta aurtengoan ere bide beretik jarraitzea espero dute.

Ikastaro hauetan, ikasleak, 1. mailarako, 2. mailarako, 3. mailarako edo Euskal Gaitasun Agiria lortzeko azterketetarako prestatzen dituzte. Bide beretik, IVAP, IRALe edo Osakidetza hizkun-

tza eskakizunetarako prestakuntza ere lantzen dute.

Aurten, berrikuntza nabarmenatariko bat ikastetxeetako zuzendaritzekin hitz egin eta gero burutu dutena izan da, alde batetik. Tolosako ikastetxeetako ikasleek gurasoei euskaltegian izena emateko eskaintza helarazi zieten pasa den ekainean, eta Uzkudunek azaldu du, harrera nahiko ona izan duela ekimen honek: «seme alabekin euskaraz erlazionatzeko aukera ona da».

Bestalde, merkatariei ere eskaintza berezia luzatu diete aurten, Tolosa & Co merkatariek elkarrean bidez. Dendariak izan ohi duten lan-ordutegi berezia dela eta, Aitzol Udal Euskaltegi ohiako ordutegietara ezin izaten dute egokitu. Gauza horrela, eguerdian eta iluntzeetan eskola bereziak antolatuta dituzte merkatarientzat: «arlotu guztiak hartu nahi ditugu euskararen zabalkuntzan», dio Uzkudunek.

Diru laguntzak tolosarrentzat

Iazko ikasturtean bezala, aurten ere, Tolosan erroldatutako ikasleek laguntza bat jasoko dute Tolo-

sako Udalaren eskutik matrikula egiterakoan; aurten, ordea, laguntzak ikasturte hasieran jasoko dituzte ikasleek.

Aurrez aurreko klaseek 400 euroko kostua izango dute berez, baina Tolosan erroldatutako ikasleek %50a soilik ordaindu beharko dute; laguntza jaso ondoren, baldintza batzuk bete beharko dituzte (asistentzia adibidez). Autoikasuntzako matrikula egiten dutenek, berezko 600 euroen %25a soilik ordaindu beharko dute. «Badakigu ikasle askorentzat ezinezkoa dela diru kopuru horiek bat-batean ordaintzea, eta erraztasunak eman nahi izan ndizkiegu», dio Irazabalbeitiak. Honez gain, aurrez aurreko eskolatan izena ematen duten ikasleek, matrikula bi epean ordaindu ahal izango dute: prezioaren bi herenak ordaindu beharko dituzte orain, eta azaro inguruan, hirugarren zatia ordaindu beharko dute.

Iñaki Irazabalbeitiak, «momentu honetan, beraz, dirua euskarara ikasteko aitzakia ez» dela azaldu du.

• tolosa@hitza.info



TOLOSALDEKO HITZA

XIV. HITZA Udako argazki lehiaketa

1. Saria

Landetxe polit batean bi pertsonentzako **bi gaueko egonaldia**

2. Saria

Tolosako Karlis estudioan **argazki erreportaje bat**

3. Saria

Astelena jatetxean bi pertsonentzako **otordua**



Pertsonako argazki bakarra bidali daiteke thargazkiak@hitza.info helbidera

Bidali zure argazkiak irailaren 23a bitarte!



Irudian ikusten den amildegitik behera erori ondoren, horrela gelditu zen kamioia. Gidaria bertan zendu zen. A. IMAZ

Aldaba Txiki auzoko AHTren lanetan langile bat hil da

47 urteko langilea amildegitik behera erori zen kamioia gidatzen zihola; lan istripua atzo gertatu zen, goizeko 04:00etan

Euskal gehiengo sindikalak deituta elkarretaratzea egingo dute bihar, 12:00etan

Asier Imaz

Tolosako Aldaba Txiki auzoan langile bat hil zen atzo goizeko 04:00etan. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak jakinarazi

zuenez, 47 urteko langileak, Abiadura Handiko Trenaren azpiegituran egiten zuen lan; kamioia gidatzen zihola gertatu zen lan istripua.

Tolosako udaltzainak, Ertzain-

tza eta Guardia Zibila Aldaba Txiki auzoan izan ziren atzo, istripua gertatu zen lekuan. Auzo horretan egiten ari diren AHTren lanetan azpian, «22 tonako» kamioia zegoen, aurrealde guztia kolpatu-rik zuela. Honen inguruan, azpiegitura aurrera eramaten ari diren enpresetako hainbat ordezkarik eta langile elkartu ziren. Hauetako baten esanetan, 47 urteko langilea portugaldarra zen, eta bost hilabete zeramatzen azpiegitura honetan lanean. «Ez dut ulertzen zer gertatu den. Goiko pista ondo dago; hormigoiarekin, zabalda eta

lehorra. Kamioi hauek, hutsiki zihotan gainera, edozein malda igotzeko indarra dute», zioen. Amildegitik behera, kamioia bueltarik eman gabe erori zela ere gaineratu zuen langile zenduen kideak: «Ondoren, beheko errepidean irauli, itzulia eman eta hor ikusten den bezala gelditu da, lau gurpilean gainean. Ez dakit nola gertatu den; edo frenurik gabe gelditu eta... edo bihotzekoak eman dio... ez dakit, ez dakit». 47 urteko langileak Juve enpresarentzat egiten zuela lan ere azaldu zuen.

Erreakzioak

Lan istripuaren ondorengo orduetan, hainbat iritzi plazaratu zituzten herri mugimendu, sindikatu eta alderdi politikoei.

ELA, LAB, STEE-ELAS, EHNE eta Hiru sindikatuek heriotza salatu eta hildako langilearen familiari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea deitu zuten. Mobilizazioa bihar izango da, Tolosako udaletxearen aurrean, 12:00etan.

LAB, ELA eta AHT Gelditu! Elkarlanak AHTren obretan langileek jasan behar dituzten «lan baldintza kaxkarrak» salatu zi-

Sindikatuak Tolosako udaletxearen aurrean elkarretaratzea egingo dute bihar, 12:00etan

tuzten. ELAren esanetan, «obretako arduradunek ez digute lan eremuetara sartzen uzten langileen lan eta segurtasun baldintzak ikuskatzera». LABek bere aldetik, «AHTren lanak gelditzea» eskatu zuen, «jadanik bost langileren biziak aurretik eraman dituelako proiektu honek». Horrez gain, sindikatu abertzalearen esanetan, «erakunde publikoek, Arriola jauna buru dutela, patronalaren moduan jokatzeko dute, bide neoliberalak erabiliaz, hau da, denbora gutxian asko egin eta kostu gutxirekin».

AHT Gelditu! Elkarlana herri mugimenduak ere obrak gelditzea eskatu zuen. Era berean, antolatutako mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu zieten herritarrei.

PSE-EE alderdiak ere bere irakurketa plazaratu zuen atzokoan. AHTren bultzatzailetako bat den alderdi politikoak, ezbehar hauekin amaitu beharra dagoela azaldu zuen. Horretarako, lan istripuen aurrean «zero tolerantzia» aldarrikatu zuten PSE-EEkoek. Atzoko istripuaren aurrean, euren «samina, dolimnak eta elkartasuna» azaldu zituzten.

berria bekak 2011

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: zortzi beka

Ezaugarriak:

- Zortzi hilabete eta erdi ko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 5.908 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: beka bat

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian



Larunbateko Gazte Egunean parte hartu zuten guztiek argazki bat atera zuten. HITZA

Gazte eguna ospatuz

Egun osoko Gazte Egunean, urteko balantzea eta aurrera jarraitzeko asmoak jorratu zituzten

Eneritz Maiz Anoeta

Azken urteetako ohiturari jarraituz, anoetarrek iraila hastearekin batera Gaztetxean Gazte Eguna ospatu zuten. Herriko gazteek

hilaren 3rako X. Gazte Eguna antolatu zuten.

Ohiturari jarraituz, gosari eder batekin eman zioten hasiera egunari. Ondoren, asanblada egin zuten. Alde batetik urteko balantzea egin zuten, eta aurrera begira jarri ziren, beste aldetik belaunaldi berriari ongietorria egin zioten.

Eguedria iristean sagardo dastaketa izan zuten, eta paella egin ondoren bertan bazkaldtu zuten. Barrenak ondo aseta, 18 bikotek

hartu zuten parte Gaztetxean jokatuz zen mus txapelketan. Arratsaldeari amaiera emateko, poteo alai bat izan zuten. Joko ezberdinak egin zituzten gerriak eta mihiak mugitzeko.

Egunari amaiera emateko, berriz ere, mahaiaren bueltan elkar-tu ziren afaltzeko. Ondoren, txirrisklas gauaz gozatzeko aukera izan zuten bertaratutako guztiek. Gaztetxean musikarik ez zen faltatu eta Skandalo Publiko eta Laketen kontzertuak izan zituzten.

Ikastaroetan izena emateko azken egunak dira

Dantza eta pilota ikasturte osokoak dira, eta makrobiotika ikastaroa irailetik abendura izango da

E. Maiz Anoeta

Iraila guztietan bezala, eta ikasturtea hastearekin batera, ikastaroetan izena emateko aukera zabaldu da. Anoetako Udalak, dantza, pilota eta makrobiotika ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du. Uda aurretik izena emana dutenek, ez dute berriz eman behar.

Anoetako Dantza Eskolako klaseak urriaren 3an hasiko dira, eta ikasleek urria proba gisa erabiltzeko aukera dute. Dantza eskolaren izena eman nahi dutenek, hilaren 16a izango dute azken eguna.

Txikienean, 3-4 urtekoek, 65 euro ordaindu beharko dute ikasturte osoa. Asteleheneran izango dute saioa 17:15etik 18:15era. 5-6 urtekoek berriz, astearteetan 17:15etik 18:15era. Ertainek, hau da, 7 urtetik 12 urtera bitartekoek, 80 euro ordaindu beharko dute ikasturtea. Asteazkenetan 17:15etik 18:30era izango dute saioa.

Gaztetxoek, hau da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek, ostegunetan 19:00etatik 20:30era izango dute. Helduek al-diz, astearteetan 20:00etatik, 21:30era. Izena udaletxean edota liburutegian eman behar da.

Anoetako Udala Pilota eskolaren kasuan ere, urriaren hasiko dute ikasturtea, eta hasiera batean saioak astearteetan izango dira. Urriko hila eta proba gisan erabiltzeko aukera dute interesa dutenek. Izena eman nahi dutenak, azken eguna hilaren 16a, ostirala izango du. Horretarako udaletxera edo liburutegira joan behar da.

Aurrebenjaminek (LH 1 eta 2), ikasturte osoa 65 euro ordaindu beharko dute. Asteleheneran 45 minutuko saioa egingo dute. Pilotaren hastapena izango da: pilotaren ezaugarrien ezagutza egingo dute joko ezberdinen bidez: botea, mugimendua, ibilbidea ezberdina...

Benjaminek (LH 3 eta 4) eta alebinek (LH 5 eta 6), 65 euro ordaindu beharko dute ikasturtea, eta asteleheneran ordubeteko saio izango dute. Esku pilota eta paleta hastapena izango da. Infantilek eta kadeteek (DBH) ere 65 euro ordaindu beharko dute ikasturte osoa, eta asteleheneran ordubeteko saio bat izango dute.

Makrobiotika ikastaroa

Ikastaroa irailaren hasi eta abenduan bukatuko da. Larunbatetan izango da, eta hilean saio bat egingo dute. Lehena, hilaren 17an izango da. Jarraian, urriaren 15ean, azaroaren 19an eta abenduaren 10ean izango dira.

09:30ean hasi eta 15:30ean emango diete amaiera klaseei. Ateaga Elkartearen izango dira, eta irakaslea Jexux Larretxea izango da. Ikastaroaren kostua 185 eurokoa izango da. Egun bakoitzean, elkartearen gastuak ere ordaindu egin beharko dira. Ikastaroa euskaraz izango da, eta dosierra banatuko da. Goizetan, egun horretako menuaz hitz egingo da: elikagai horien ezaugarriak, 13:00etan bazkaria, eta ondoren solasaldia egingo dute elikadura eta osasun fisiko, psikiko eta emozionalaren arteko harremanari buruz.

Izen ematea udaletxean edo liburutegian egin beharko da, eta horretarako azken eguna hilaren 13a, asteartea izango da. Ikastaro honetan 30 partaide onartuko dira gehienez, eta anoetarrek lehenatasuna izango dute.

Anoetako Udalak, herritar gazte eta helduak izena ematera animatu nahi ditu.

ORiA S.L.

zeramika- bainua

BEROGAILU, GAS ETA ITURGINTZA INSTALAZIOA

Tel.: 943 67 32 89 • Fax: 943 69 71 20
Euskal - Herria, 4 Behea 20400 IBARRA



Argazkia Formenterako hondartza batetik ateratakoa da. Bertan lasaitasuna, Mediterraneo itsasoko ur gardenak eta Ibizako mendilerroa ikus daitezke. OINATZ MARTINEZ



Argazki hau Ingalaterrako hego mendebaldeko Brixham herri arrantzaletik gertu ateratakoa da, Devonon, Ingalaterrako paraje ederrenetarikoa daude bertan dudarik gabe. AGURTZANE LARRAÑAGA

Opor egunak gogoratuz

Lehen argazkiak hasi dira **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARA** iristen; hilaren 23ra bitarte bidali ahal izango dira

Harpidedunek ez ezik, edozein irakurlek izango du argazkiak bidaltzeko aukera XIV. HITZA argazki lehiaketara

Erredakzioa

Irailarekin batera, lan egunak ate joka iritsi zaizkigu gehienoi. Hala ere, beti izaten da polita udako oporraldian pasatako

uneak gogora ekartzea. **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK**, urteroko moduan, zuen oporretako argazkiak irakurleen artean elkarbanatzeko aukera eskaintzen dizue, XIV. HITZA Argazki Lehiaketarekin.

Argazki lehiaketa egin izan dugun bestealdi batzuetan, **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariko harpidedunek soilik parte hartu ahal izan duten arren, oraingo honetan edozein herritarrek izango du aukera,

bere argazkiak bidali eta gure lehiaketan parte hartzeko.


Horretarako, bi bide izango dira: posta elektronikoko bidez thargazkiak@hitza.info helbidea, eta posta arruntaren bidez, Araba etorbideko 5-atzea helbidea.

Hiru sari

Argazkiak irailaren 23ra arte bidaltzeko aukera izango da, eta zortzi onenak epaimahaiak aukeratu ondoren, harpidedunek urriaren 5a

bitarte emango dituzte euren bozkek. Hiru argazki irabazleak urriaren 7ko egunkarian argitaratuko ditugu.

Argazki irabazlearen jabeak Bizkaiko landetxe batean bi gaueko egonaldia irabaziko du bi lagunentzat. Bigarren postuan geratzen den argazkiak, Tolosako Karlis dendan argazki erreportajea egiteko aukera izango du, eta hirugarren saria, Tolosako Astelena jatetxean bi lagunentzako otordua izango da.



Euskal Herrian bertan paisaiez gain animalien edertasunak ere ez du mugarik, hemen bidaltzen dizuet naturaren beste mirari bat. MIKEL GARMENDIA



Argazkia Eskoziako lurralde garaietan ateratakoa da. Eskualde menditsua eta lakuez bete da, eta Erresuma Batuko mendirik altuena bertan dago (Ben Nevis). INIGO ZAPIRAIN

elduairen **MATRIKULA ZAITEZ!!**

2011-12 ikasturtea

Hizkuntza desberdinen aukera zabala: **ingelese, ouskara, frantsesa, alemaniera, italiara**

GRATIA 2011 BEASAIN

www.elduairen.com

DOMOSTOLA: OINARRETA, 7. 48101 OI. BILBAO
 BILBAO: OINARRETA, 7. 48101 OI. BILBAO
 TOLOSA: OINARRETA, 7. 48101 OI. BILBAO

LARANTE, 7. 48101 OI. BILBAO
 URNETA, 7. 48101 OI. BILBAO
 BILBAO: OINARRETA, 7. 48101 OI. BILBAO
 ALDANA, 7. 48101 OI. BILBAO

Calidad Peugeot

Peugeot Sarean, prezioa eta kalitatea parean

Kalitatea: Zerbitzu profesionalizatua / Doako azterketa 29 puntutan / Pneumatikoetan bermea
Prezioa: Eskatu aurrekontua eta lasaitasunak gehiago ez duela balio ikusiko duzu.

Eskaintzak ondorengo markentzat balio du:

FLEXICRÉDITO 24 HILABETETAN ORDANTZEKO AUKERA

TOLOSA MOTOR, S.A. San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com

Iker Karrera Mendi lasterkaria

Denboraldi bikaina burutzen ari da Iker Karrera. Azkeneko lorpena, mendi lasterketa ezagunenean bigarren postua eskuratzea.

«Espero baino emaitza hobegoak jasotzen ari naiz»

Imanol Garcia Amezketan

Mendi lasterkari guztiek noizbait egin nahi duten proba da Mont Blanc-eko Ultratraila. Proben erregina da: Alpeetan, 170 kilometro eta gutzira hamar mila metro maldan gora. Lehenengo aldia zen Salomon taldeko Iker Karre-
rak (Amezketan, 1974) parte hartzen zuela. Sekulako denboraldia egin ondoren, Pirinioetako hiru handienak gelditu gabe igoz ezarritako errekorra tar-
teko, bigarren egin zuen. Kilian Jornetek 20:36:43 egin zuen, Iker Karre-
rak 20:45:30, eta Sebastien Chaigne-
a 20:55:41.

Egun batzuk igaro dira bigarren postua lortu zenuenetik Mont Blanc-eko Ultratrail proban. Nola ikusten duzu lorpena?

Egia esan ez nuen espero. Eta gainera uste baino oihartzun gehiago izaten ari da. Eta ondo iruditzen zait, nigatik baino, orokorrean, gai hauek normalean ez dutelako horrelako interesik sortzen komunikabideetan, eta honek balio du mendi lasterketarak gehiago ezagutu daitezen.

Pirinioetako marka egin zenuenean, esan zenuen denboraldia borobila zihola. Proba honen ondoren, oraindik eta borobilago, ezta?

Ordura bitarte oso ondo zihohan eta honekin erabat borobildu egin da orain arte egindakoa. Espero baino emaitza hobegoak ja-

sotzen ari naiz denboraldian zehar.

Nola sentituzinen proban?

Ondo. Taldean joan ginen eta tartean Salomoneko bi taldekide zeuden, Kilian Jornet eta Miguel Heras. Horrek askoz ere eraman-garriago egin zuen, batez ere gaueko zatia. Ondo aritu ginen, baina lasterketaren gogortasunaren baitan, gure minekin, gure gorabehera guztiekin... Baina ikusten duzunean hor aurrean zoazela, erritmo gogor bati eusteko gai zarela, eta kilometroak aurrrera doazen heinean bukatzeko gai zarela, sentsazio onekin zoaz. Gaua gogorra egin zitzaigun, baina egunez gozaten joan ginen. Nire kasuan, non kokatuta nindotan ikusiz eta sentsazio onak nituela.

Lasterketaren hasiera ordu batzuk atzeratu zuten, eguraldi txarra zela eta.

Bost ordu atzeratu zuten. Horrela, guk portuak pasatu behar genituenean, ekaitzaren zati gogorrenak ez harrapatzeko. Elurra-
rekin pasatu genituen portuak, baina ez elurra ari zuela. Horrek pixka bat arindu zuen gogortasuna. Hotz handia egin zuen, hori bai.

Marka berria ezarri zuten Kilian Jornetek, eta zu bederatz minutu sartu zinen. Beraz, bigarren postua eta gainera denbora oso onarekin.

Marka hor dago. Bidean aldaketa



Iker Karrera, eskuinean, Kilian Jorneten aurretik Mont Blanc-eko Ultratraillean. PASCAL TOURNAIRE

txiki batzuk sartu zituzten, eta ez dakit aurtengo denbora errekorra bezala onartuko duten. Berez distantzia 166 kilometrokoa da eta guk aurten 170 egin ditugu, eta gainera denbora gutxiagoan. Nik egindako denborari balioa ematen diot.

Ultratraillean munduko onenak elkartzen dira eta zure asmoa hor nola moldatzen zinen ikuste zara. Orain, edozein mendi lasterketetan fabaritoen artean izango zara.

Hori zen zalantza: mundu mailako onenekin irteeran batera ateratzea eta horiek ni non nengoen ikustea. Emaitzaren ondoren esan daiteke punta-puntan aurkitzen garela. Fabaritoaren izendapena segituan jartzen dizute, eta gainean eramaten den zerbaite da. Baina hori polita da eta gustura eramango dugu.

Korrikalari amerikarrak ez omen ziren fin aritu, eguraldia dela eta.

Beti daude kale egiten dutenak. Erdiek baino gutxiago bukatu zuten proba. Bertan behera utzi zutenen artean fabaritoak ere ba-
zeuden. Amerikarren kasuan pentsatzen dut gauean asko sufritu zutela. Hemengo eguraldi txarrak bereziki gastatu egin zituen. Mont Blanc-ekoak hori du: hotza lasterketaren parte bat da. Ameriketako lasterketetan hemengo korrikalariak beroaren arazoa izaten dute, eta bertakoek abantailarekin jokatzeko dute. Eta hemen, berri, egokituago gaude klima hotzagoetara.

Salomon taldeko Jornetekin eta Herasekin batera kilometro asko egin zenuen, Heras lesionatu zen arte. Aurretik hitz eginda zenuten taldean joatea?

Ez genuen hitz eginda, baina hirurok bagenekien ondo gontozela eta erritmo indartsu batean joateko aukera genuela. Ez geniekien lasterketa nola joango zen. Eguraldi txarra izatean, bestearen babesa bilatzen duzu eta taldean joan ginen. Eta zer hobe, talde horretan hiru lagunak garenak elkarrekin joatea.

Kilian Jornet beste maila batean dagoela esan daiteke?

Alde batetik eskarmentu handia du eta, bestetik, adinaren freskotasuna du. Guk eskarmentua izan dezakegu, baina adinaren freskotasuna ez daukagu. Bera beste maila batean dago. Bederatzi minutu atera zizkidan amaieran, berak hala nahi izan zuelako. Denbora tarte handiagoa ateratzeko gai izango zen nahi izan balu.

Noiz ikusi zenuen bigarren izango zirela proban?

Vallorcinen esan zidaten Miguel erretiratu egin zela, eta une horretatik aurrera podioa ziurtatuta zegoela esan zitekeen. Zalantza bigarren edo hirugarren postuetan zegoen. Podioan izateak lasaitasuna ematen dizu. Lasaitasun hori izanik, ahal duzuna ematera joaten zara. Col de Forglaz igo-tzen atzean utzi genituen Chaigneau eta Miguel. Horren ondoren,

frantsesa ez zen gai izan Kiliani eta niri harrapatzeko.

Zein izan zen unerik zailena?

Gaua. Hasiera ere zaila egiten zaitzu eta gainera asko afalduta ateran nintzen eta nahiko deseroso joan nintzen kilometro mordo batean. Gero urdaila bere onera etorri zen eta lasaitu egin nintzen. Kezka ere banuen tripak izorrratu behar ote zitzaizkidan, baina ez zen hala gertatu.

Eta unerik ederrena?

Une asko egon ziren ederrak. Hasiera bera ere oso polita izan zen. Lasterketan une asko politak izan ziren. Une askotan taldeko hiruk batera joan ginen eta horiek une politak izan ziren. Gero, bukaera oso momentu berezia da: hainbeste jenderen tartean iristen. Berezieta bukaera da, hor dena biltzen delako.

20 ordu korrikari egin zenuen. Hainbeste denboran, ibilbidea egiteaz gain, zertan pentsatzen duzu?

Gauza asko etortzen dira burura. Entrenatzen zoazen garaian motxila bat kargatzen joaten zara, ahal den neurrian motibatzen laguntzen dizuten bizipen eta sentsazio ezberdinekin. Lasterketan zehar motxila horretatik tiraka zoaz, eta saiatzen zara gauza positiboak izan daitezen. Txarrak ere etortzen dira, baina saiatzen zara azkar pasatu daitezkeen. Jende asko etortzen zaizu burura: ingurukoak, lankideak, lasterketetan aritzen direnak, fisioak, babesleak... Horien laguntzarik gabe ezinezkoa izango zen lorpen horiek eskuratzea.

Denboraldia bukatzeko beste lasterketa bat falta zaizu, Cavalls del Vent.

Horrekin bukatu eta atseden hartuko dugu, errekuperatu, ingurukoekin lasaixeago egon, eta datorren urtea prestatu.

Iaz hirugarren egin zenuen. Zer asmo duzu orainoan?

Hazu errekuperatzen bada, joateko asmoa du eta Jornetek ere bai. Beraz hirukotea berri han topatuko gara. Proba gogorra da. Erritmo izugarri batean ateratzen da.

Iragarki laburrak

SALGAI


• **Etxebizitza.** Etxe adosatua salgai Tolosan. Eguzkitsua. Lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autoentzako garajea, txokoa, lorategia eta trastelekuak ditu. Interesatuak 678 267 657 telefono zenbakira deitu.

• **Quad-a.** 2004 urteko Suzuki LTZ-400 quad-a salgai. IAT pasatu du, osagarri asko ditu

eta oso egoera onean dago. Interesatuak deitu 600 752 537 telefono zenbakira.

GALDUTAKOAK

• **Tzakurkumea.** Setter ingeles arrazako zakurkumea galdu zen irailaren lehen. Ansoetako hil-
lerriaren inguruan. Zuri-beltza da eta bost hila bete ditu. Ikusi edo aurkitu duenak mesedez dei dezala 615 72 90 85 telefono zenbakira. Eskertuko da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Leitzaren irudi manipulatu ematen ari direla salatu dute hainbat herritar eta eragilek

Bihar Madrilen deklaratzera deitu dituzten hiru herritarrei babesa eta laguntza adierazi diete

Erredakzioa Leitza

Oier Eizmendi Leitzako alkatea eta jaietan txupinazoa bota zuten Saioa Iraola eta Lurdes Juantorena herritarrei elkartasuna adierazteko sortu den Auzipetuekiko babes taldeari herriko hainbat eragile eta norbanako atxikitu zaizkio, tartean kultur eta kirol munduko izen ezagunak. Hala, guztiek bat egin duten idatzian, «euren aurka asmatutako auzia» dela salatzen dute, eta Leitzako herriaren irudi manipulatu ematen ari direla adierazi dute.

Atzo eginiko agerraldian azaldu zuten, pesta bezperan egin ziren presoan aldeko elkartasun agerraldiak «kriminalizatuz» batera, Leitzako herriaren irudi osotara manipulatu ematen ari dira: «hemen egon ez eta, egun horretan plazan eta udaletxean gertatu zenaren bertsio osotara nahastu, gezurrezko eta interesatuak hedatu dituzte; hemen sekulako guda batean bizi bagina bezala; herrian elkarbizitza ezinezkoa izanen balitz bezala».

Testuari atxikituriko askok, eragile diren heinean, pesten antolatketan hartzen dute parte, eta aurtengoak pesta «lasaiak eta inolako liskarrik gabekoak» izan direla azaldu dute. «Herriaren alde egiten dugu lan, arloz arlo herria eraikitzen, osatzen eta bideratzen, eta hori egiten jarraituko dugu». Horregatik, «herria pakean uzteko esijentzia» egin dute.

Leitza herri «euskaldun parte-hartzaile, solidario eta langilea» dela diote, «harrotasunez», eta aurrerantzean ere «halaxe izaten jarraituko du». «Hori badakigu

↓ **Atxikimendua adierazi dutenak**

ERAGILEAK

- Aurrera Kirol Elkarte.
- IKA.
- Kornieta elkarte.
- Amnistiaren Aldeko Mugimendua.
- ALKE Kultur Elkarte.
- Marmari Euskara Taldea.
- Mendigorria elkarte.
- Saharar Herriaren Aldeko Elkartasun Taldea.
- Torrea elkarte.
- Jeiki abesbatza.
- Liñoputzu eho-ziri elkarte.
- Atekalbeltz gazte asanblada.
- Gazte independentistak.
- Muttur bero elkarte.
- Karrape irratia.
- Atekalbeltz elkarte.
- Leitzako Bilgune Feminista.
- EHNE.
- Leitzako erraldoien konpartsa.
- Leitzako txalapartariak.

NORBANAKOAK

- Jose Luis Uhartea, liburuzaina eta txistularia.
- Jon Kanflanka, segalaria.
- Ibai Bengoetxea, pilotaria.
- Iñaki Agirre, erremontista ohia.
- Maite Perurena, gizarte-langilea.
- Aimar Sagastibeltza, futbolaria.
- Oinatz Bengoetxea, pilotaria.
- Patziku Perurena, idazlea eta txistularia.
- Ruben Astibia, erremontista ohia.
- Abel Barriola, pilotaria.
- Iera Agirre, pala-pilotaria.
- Asier Olaizola, pilotaria.
- Mikel Ilarregi, irakaslea.
- Joxton Olaetxea, pilotari ohia.
- Aitor Zabaleta, Esne Beltza taldeko musikaria.

bertako jendeok. Eta kanpotik etortzen den orok, horixe egiaztatu izandu du orain artekoan eta hemendik aurrera ere, nahi izanez gero, horretarako aukera izanen du».

Auzipetuei elkartasuna

Bestalde, Oier Eizmendi Leitzako alkatea eta jaietan txupinazoa bota zuten Saioa Iraola eta Lurdes Juantorena herritarren aurkakoa «asmatutako auzia» dela salatu dute, eta gertatzen ari zaien «injustizia» honen aurrean babesa eta laguntza adierazten diete. Halaber, dei egin diete herritarrei, auzi honen nondik norakoek markatzen duten bidean antolatuko diren ekimen desberdinetan parte hartzea.

Euskal Herriko Bilgune Feministak ere babesa adierazi die Bilgune Feministako kide den Saioa Iraolari, «urteetan emakumeen eskubideen alde lanean arituen» Lurdes Juantorenari eta

Leitzako alkateari. Emakumeen eskubideei jaietan behar duen tartea emateagatik deitu dituzte deklaratzera salatu dute.

Babes ekimenei dagokionez, gaurko elkarretaratzera deituta dago nahi duen oro. 20:00etan izango da herriko plazan. Ekime- nek bihar izango dute jarraipena, hiru auzipetuek Madrilera deklaratzera deituta dauden egunean. 12:00etatik 14:00etara bitarte lan uztea egingo dute elkartasun moduan.

Bihar Madrilera deklaratzera

Leitzako pestetan euskal presoenganako babes eta omenaldi ekitaldiak egin zirela argudiatuta, Pablo Ruz Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak «terrorismoa goratzea» egotzita inputatu ditu Oier Eizmendi Leitzako alkatea, Saioa Iraola eta Lurdes Juantorena. Bihar 11:00etatik aurrera deklaratu dute epailearen aurrean, Madril.

Kirol ikastaroetan izena emateko aukera zabalik

Gazteei zuzendutako cycling ikastaroa da aurtengo berrikuntza; Belabietako kiroldegian eman behar da izena

Erredakzioa Ibarra

Belabietako kiroldegian ikasturte berrirako prestatu dituzten kirol- ikastaroetan izena emateko aukera zabalik dago. Pasa den urteko eskaintzatik bada berrikun-

tzarik, izan ere, gazteei zuzenduriko cycling-a dago aurtun aurretan.

Multifitnes, pilates, hirugarren adinekoentzako gimnastika, yoga, cycling, tai-chi, bosu-gap, gimnastika erritmikoa eta pilota dira herritar guztien eskura dauden ikastaroak.

Informazioa eskatu edo izena emateko Belabietako kiroldegira (662 125 497 / 657 719 533) jo ahalko da. Pilota ikastaroaren kasuan Sendi Ekintzan (625 707 829) egin beharko da.



Gazteentzako cycling ikastaroaz gozatu ahalko da aurtun Belabietan. N.L.

Euskara ikasleentzat diru laguntzak

Irailaren 15a baino lehen egin beharko dira eskariak; gehienez %50eko laguntza jasoko dute ikasleek

Erredakzioa Leitza

Euskara ikasleentzako diru laguntzak eskatzeko epea zabalik dago irailaren 15era bitarte. 2010eko irailaren 1etik 2011ko abuztuaren 31ra arte egindako

ikaslaroen matrikulak lagunduko dira diruz. Laguntza %50ekoa izango da gehienez, eta langabe- tuen kasuan %100ekoa. Diru laguntza jasotzeko gutxieneko asistentzia %80koa izango da, eta nahitaezkoa izango da Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea osatzen duten herrietako batean erroldatua egotea.

Informazio gehiago jaso nahi duenak Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatearekin jarri beharko du harremanetan, 948 50 30 35 zenbakian.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



GOIZA	EGUZKIA
ARRATSALDEA	EGUZKIA
BEROENA	25°
HOTZENA	17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Zorionak!
Izadi eta Hegoi Mujika Labaien (Armezketeta).
Gaur urte bat! Zorionaaaaaaaaaak!

Agenda

MOBILIZAZIOAK

- **Leitza.** Gaur, hilak 7, elkarretaratzea herriko plazan, 20:00etan. *Utzi pakean Leitza* lelopean.
- **Leitza.** Bihar, hilak 8, bi orduko lanuztea, 12:00etatik 14:00etara. Espainiako Auzitegi Nazionalak inputatu dituen herritarrei babesa azaltzeko.

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Hilaren 17an, larunbatean, Euskal Herria Eguna ospatuko dute Ibarra. Herri bazkari-rako txartelak salgai jarri dituzte, Danon Txokoa eta Atari tabernetan. Helduen txartelak

12 euro balio ditu, eta haurrenak 6 euro.

- **Villabona.** Oinkari dantza taldean izena emateko aukera zabalik dago. Horretarako 660 13 93 80 telefono zenbakira deitu behar da. Ikastaroetako ordutegi ikusteko, www.oinkari.net web orrian sartu behar da, *albisteak* atalean klikatuz.

KIROLAK

- **Armezketeta.** Joxean Tolosa Pilota Txapelketaren finalak hilaren 11n, igandean, jokatuko dira 17:00etatik aurrera. Bertan eskualdeko bi pilotari egongo dira. Jaka lizartzarra eta Olano are-soarra.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** María Isabel Tolosa, Kale Nagusia 7.943 67 06 48.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-nen eta iritzien erantzukizunik.



Jolaslekuan elkartzen joan ziren ikasleak, eta txirrina jotzearekin batera barrura sartu ziren, Alegian. E.MAZ

Alferkeria etxean utzi, eta ikasturte berria gogoz hasteko eguna iritsi da

Tosalaldeko eta Leitzaldeko ikasle gehienek atzo izan zuten ikastetxera joateko lehen eguna

Erredakzioa

Irakasleak hileko lehen egunean egin zuten eskolarako bidea, eta ikasle gehienek atzo izan zuten eskolarako bidea egiteko lehen eguna. Gainontzeko ikasleek bezala, Tolosaldeko eta Leitzaldeko ia ikasle gehienek ere atzo hartu zuten euren gelako aulkia.

Gurasoek eta ikasleek alferkeriak alde batera utzi eta eguna indartsu hasi zuten. Gurasoen laguntzarekin gerturatu ziren txikiak. Batzuek lehen eguna izan



Bi hilabete eta gero, Tolosako ikastetxeek ere bizia hartu dute. I.GARCIA

zuten, besteek aspaldian ikusi gabeko lagunak agurtu zituzten, batzuen urduritasuna eta besteen lasaitasuna, ikaskide eta irakasle berriak ezagutzea,... izan zen

atzoko eguna. Hala ere, lehen eguna atsegina izango zuten.

Gaurtik aurrera ordea, gogotsu ekin beharreko ikasturte berria izango dute aurretik.



**FUNERARIA
VASCONGADA
EHORZKETAK**

Larrea Poligonoa 34 - 1
www.funerariavascongada.com

Gertu...
VILLABONAKO
HILETA ZERBITZUAK
BEILATOKI BULABEA

24 H..
943 694 873